


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo ziren 2004ko abuztuan

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko abuztua, 2003ko abuztuarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %6,5 gehitu ziren.

2004ko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,5 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta abuztuko urte arteko tasa %6,5era iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Gehikuntza abuztuko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

Lehengaien kostuak %0,8 igo ziren, aurreko hilaren aldean, eta bilakaera berdina izan zuten *eraikuntzan* eta *obra zibilean* (%0,8). Azpisektore bien urte arteko bilakaerari begiratu gero, ikusiko dugu kontsumitutako lehengaiei dagokienez ere ibilbide nahiko homogeneoak izan zituztela: *eraikuntzako* lehengaien kostuak %7,8 igo ziren eta *obra zibilekoak* %7,5.

Abuztuan, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *energia elektrikoa* (%3,7), *metalezko hoditeria* (%3,2), *olioak eta koipeak* (%2,9), *asfalto-produktuak* (%2,6), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%2,5) eta *petroliotik eratorritakoak* (%2,2) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten *lehergaiak eta gasak* (%-1,5), *beira* (%-1,1) *plastikozko hoditeria eta isolatzaile termikoak* (%-0,4) eta *zementu artifiziala* (%-0,3) lehengaiak, besteak beste.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%40,7), *burdina eta altzairua* (%30,5), *asfalto-produktuak* (%22,1), *petroliotik eratorritakoak* (%14,0) eta *zementutik eratorritako gaiak* (%9,8) lehengaiak. Bestalde, urteko arteko prezioetan (2004ko abuztua, 2003ko abuztuaren gainean), murrizketak izan zituzten *harri elaboratua* (%-3,7), *lehergaiak eta gasak* (%-3,5), *garbitzeko eta txukuntzeko materiala* (%-2,1), *bulego-materiala* (%-1,8), *beira* (%-1,6) eta *energia elektrikoa* (%-1,2) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO ABUZTUA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	114,4	0,5	6,5	6,3	
ERAIKINAK	114,2	0,6	6,5	6,4	
OBRA ZIBILA	115,0	0,5	6,1	6,1	
LEHENGAIEN KOSTUA	111,7	0,8	7,7	7,5	
ERAIKINAK	111,7	0,8	7,8	7,6	
OBRA ZIBILA	111,9	0,8	7,5	7,5	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp